

NAFARROAKO MENDIALDEKO IKA
EUSKALTEGIEN EUSKARA ALDIZKARIA

ika

ETXETIK PLAZARA

AGOTEN BIDEA

SARIA:
Urdazubiko
NIKOLAURENEA
jatetxean
bi lagunentzako
otordua

2017ko IRAILA

154. ALEA

IRAKURLAN AGOTAK



Agotak nortzuk ziren? Ale honetan galdera honi erantzuna ematen saiatuko gara. Bozaten, eta bertze hainbat tokitan bizi ziren biztanle horien atzean hamaika istorio, bitxikeria, aurreiritzi... dago. Guk batzuk bildu ditugu, gehiago sakontzeko eta oroimen historikoaren barrenean aletxo txiki bat jartzeko. Azken finean, agotak hainbat **sinesmen**, botere, estruktura... eta abarren kontra, edo bertzerik gabe, ezberdin pentsatzeagatik, historiako gizakiok nozitu dugun **jazarpen**, **indarkeria** eta **bazterketako** bertze adibide bat dira.

Agoten jatorria ez da batere argia, hipotesi anitz daude: godo, sarrazeno, legendunen oinordekoak... direla aipatzen da. Jazarpen hori zergatik nozitu zuten ere ez dago garbi: alde batetik, arazo ekonomikoak, erlijiosoak, kulturalak... izanen zirela pentsatzen da, eta segur aski, bertzetik, gizakiok gu bezalakoak ez direnekiko beldurraren sentimendua.

Historian gibelerat begiratuz, Frantzia 507. urtean aipamen bat aurkituko dugu, eta Orreagako gudan ere, 778. urtean agotak aritu omen ziren. Baina hipotesien artean nagusienak dio kataroak zirela. Frantziako hegoaldean bizi ziren eta izen peioratibo anitz zituzten: kresti, kraistau, gahets, capots edota agot. Transhumanteak ziren eta lurrik gabekoak.

XI. mendean artearen barrenean gatazka anitz eman ziren harria eta zura lantzen zutenen artean. Talde bakoitzak berea defendatzen zuen; erromanikoan harriaren taldea zen nagusia, gotikoan, berriz, zurarena. Hori bai, bai batak zein bertzeak ez zuen bertze taldekorik onartzen. Gatazkak hain handiak izan ziren non, dirudienez, hortik sortu omen zen hirugarren kolektiboa edo taldea, bertze kolektiboetan tokirik ez zutenak, "Salomonen seme-alabak", gutxi gorabehera 950. urtean. Batzuen ustez, agoten jaiotza edo genesisia izanen litzateke hori.

XI. eta XII. mendeak nahiko lasaiak izan ziren Okzitanian. Frankoak hor bizi ziren, baina erlijio talde berezi bat bazen, Katarismoa, kristau garbiak (Bogomino Pope bulgariarraren jarraitzaileak dira). Talde horren zutabe ideologikoak honako hauek dira: ez dute Jesus Kristoren jainkotasunik onartzen, ez Ama Birjinaren birjinitasunik, ezta sakramenturik ere, ezta botere nahiak eta diru-goseak sortutako eliza-agintaririk ere. Garai hartan horrelako doktrina zutenen kontra jotzea hagitz normala zen, ondorioz, agoten aurkako gurutzadaren kontzeptua sortu zen. 1.200. urtean gudaroste bat egin zen kataroen kontra. Inozentzio III.a eta Luis IX.a alde batetik eta Aragoiko Pedro II.a bertze aldetik. Azkeneko hori hil egin zen eta ondorioz, lurra suntsitu zuten. Gatazka horien ondorioz artisauek edo kataro horien exodoa hasi zen: Pirinioetara, Landetara, Gorgoinara, Campagnera eta Bearnera joan ziren. Pirinioak zeharkatzen zituztenek tenplarioekin topo egin zuten eta nahasketa horrek, artean hainbat lan ikusgarri utzi zituen: San Juan de la Peñan, Somportzen, Jakan, Leiren, Eunate, Torres del Riosen edota Zuma- rragan. Zumarragako basiliza horretan eta bertze hainbat tokitan zurezko arrastoak daude, agotek egindakoak izan daitezkeenak.

XIV. mendean Felipe V.ak hereje guztiak Frantziatik kanporatu zituen, eta agotek ere, bertze batzuekin batera, lurralde hartatik atera behar izan zuten (judutarrak eta katoliko ez ziren guztiak).

Bozatera ailegatu ziren agotak exodo horretatik etorritakoak izanen dira segur aski. Arizkungo auzoan kokatu ziren eta bertan, Ursuako jauntxoarekin egin zuten topo. Jauntxo feudalarren zerbitzura jarri behar izan zuten eta hark, era berean, lagundu eta mesede egin zien. Dena den, Nafarroako bertze toki anitzetara ere ailegatu ziren XVI. mendera arte: Baztan-Bidasoara, Burgira, Lizarrara, Allora, Irunberrira...

Agoten eskubideen berdintasunaren borroka 1817raino ailegatu bazen ere, XX. mendearen erdiraino haiekiko jazarpenek eta aurreiritziek iraun dute.



ATZIZKIAK

Testuan azpimarratu ditugun hitzek atzizkiak daratzamate. Lan eta lan atal honetan atzizkiak zer diren ikusiko dugu, eta bide batez, batzuk hobeki ezagutuko ditugu. Euskal hizkuntzaren eratorpena aztertzen hasiaz batera, berezitasun nabarmen honetaz konturatuko gara; atzizkiak (hitzaren atzean doazenak) ditugu nagusi aurrizki (hitzaren hasieran doazenak) eta artizkien (hitzaren erdi-aldean kokatzen direnak) aldean.

Testuko hitzak sortzen dituztenen adibideak dira: sines**men**, jazar**pen**, bazter**keta** eta indar**keria**. Batzuetan aditz batetik sortzen dira: ulertu-ulermena kasua adibidez. Bertze batzuetan izen batetik: ume-umekeria kasu. Dena den, denetan ikusten da atzizki horrek bertze hitz ezberdin bat nola sortzen duen.

Izen abstraktuak: atzizkiok ezartzen zaizkien hitzek nolabaiteko abstraktutasun kutsua hartzen dute.

-MEN/-PEN

Jazarpena, luzapena, ulermena, oroimena, ikusmena, usaimena, sinesmena, hondamena...

-KERIA

Indarkeria, ustelkeria, umekeria, itsukeria, erokeria...

ZURE TXANDA!

Ondorengo esaldietan hitz batzuk kendu ditugu eta beheko aldean paratu ditugu. Ea dagokion tokian egokitzen dituzun.


1. Estatu Espainarrean izugarritzko ____1____ egon arren, politikariek ez dute ondoriorik jasaten.
2. Nafarroako ____2____ lantzeko hainbat tresna abian jarri arren, oraindik lan izugarria dago egiteko.
3. Eskoletako ____3____ anitzendako umekeria bada ere, arazo larritzat jo behar dugu eta ekiditeko tresnak martxan jarri.
4. Klima aldaketa dagoeneko naturan izugarritzko ____4____ eragiten ari da.
5. ____5____ galtzen duen pertsonak ____6____, ____7____ eta ____8____ indartzen ditu.
6. Gizakiok anitzetan ____9____ gure ideiak defendatzen ditugu, egia borobila eta absolutua balitz bezala.
7. Historikoki gizakiok ____10____ erabili dugu gure ideiak inposatzeko.
8. Aurtengo futbol ligan partida anitz galdu dituzte ____11____.

- | | | | |
|----------------|---------------|--------------|---------------|
| a. luzapenetan | b. ustelkeria | c. usaimena | d. oroimena |
| e. ikusmena | f. indarkeria | g. entzumena | |
| h. ukimena | i. itsukeriaz | j. jazarpena | k. hondamenak |

JOLAS NAHAS

Orri honetan aurkituko dituzun irudi guztiek erlazio zuzena dute agotekin. Horietariko eraikin batzuk beraiek sortutakoak dira, adibidez Pabeko gazteluko egurrezko sabaia edota Zumarragako Antigua elizako egurrezko egitura. Zure lana argazki bakoitzari izenburua ematea izanen da, horretarako, balia ezazu azpiko zerrenda:


- a) Bozateko etxea
- b) Pabeko gaztelua
- c) Saint-Giron de Moneingo eliza
- d) Zumarragako Antigua eliza
- e) Almadiak
- d) Santxotena parke-museoa
- e) Almadiak



1.



2.



3.



4.



5.



6.



BITXILOREAK

MADARIKATUTAKO HERRIA



Agote deitutako komunitateak bazterketa eta diskriminazioa jasan zituela badakigu, oinarritzko eskubideen murrizketa latza jasan zuen, baina ez boterean edo goi-mailan kokatzen ziren pertsonengandik bakarrik, herritar xeheek ere baztertzuten. Hori dela eta, hurrengo lerroetan, madarikazio horrek izan zuen eragina ikusiko dugu. Testua, nominalizazioa lantzeko aprobetxatuko dugu, beraz, argi ibili eta aukera ezazu erantzun zuzena beheko taulatik.

ERNE. SABIRAKO!!

Agotak ilehori-gorriak eta azal zurikoak zirela erraten da. Belarriko gingila eratxikia omen zuten eta gainera, buztana ere ba omen zutela erraten zuten jendeak. Usain txarra omen zerien ahotik eta gainera, ukitzen zuten guztia(1)..... arriskua omen zegoen.

Azkeneko sineskera maltzur hori dela eta, ez zieten laborantzan edo aziendarekin(2)..... uzten, badaezpada ere, ez kutsatzeko. Honela, ikazkin, musikari, zurgin, sarrailagile, ebanista... eta bertzelako ogibideak landu zituzten. Itsasontzien eraikuntzan ere aritu omen ziren, eta baliteke, garai batean bederen, Burgiko (Erronkariko) almadia famatuak beraiek eraiki(3)..... Halere,(4)..... uzten zietena behinik behin, ongi egiten omen zuten, fama handia izaten baitzuten euren altzari, zurez egindako lan, eraikuntza eta sortzen zituzten bertze gisako gauzek.

Bertzalde, bazterketekin jarraituz, ez zuten lur-komunik(5)..... edota errota(6)..... eskubiderik ere. Ez zuten herri dantzetan parte(7)..... ahal eta are gutxiago agotak ez zirenekin ezkontzen ahal, eta horrek, endogamia ikaragarria ekarri zuen beraien artean. Herri batzuetan, arropetan marka bat(8)..... behartzen zituzten, Alemanian naziek juduekin egin zuten bezala, modu horretan, jendeak errazago identifika zitzen. Erronkarin adibidez, bertako jantzi tradizioaletako zinten kolorea, horia bakarrik izan zitekeen, gainontzeko herritarren zintak kolore anitzetakoak(9)..... ahal ziren bitartean.

Kanposantuan zein eliza barrenean, leku berezi bat zuten gibelego aulkietan eta ur bedeinkatua(10)..... arraska berezia. Badakigu Nafarroako elizetan bederen, ate nagusia(11)..... debekatu zitelera eta bertze ate bat zutela bertara sartu ahal izateko, bazter batean zegoena. Ate horiek orain dela ez hainbertze urte itxi zituzten, ea ba horrela mantendu eta hemendik aitzinera gure herrira(12)..... ari diren "agot" berriei ez diegun antzeko egoerarik biziartzten.

1) a.- kutsatzea
b.- kutsatzeko
c.- kutsatzera

2) a.- lan egiten
b.- lan egitera
c.- lan egiteko

3) a.- izaterik
b.- izana
c.- izaten

4) a.- egitea
b.- egiteko
c.- egiten

5) a.- lantzeko
b.- landu
c.- lantzerik

6) a.- erabiltzerik
b.- erabili
c.- erabiltzeko

7) a.- hartzera
b.- hartzea
c.- hartzen

8) a.- eramatera
b.- eramateko
c.- eramatea

9) a.- izateko
b.- izaten
c.- izatera

10) a.- hartu
b.- hartzeko
c.- hartzen

11) a.- erabili
b.- erabiltzeko
c.- erabiltzea

12) a.- ailegatzeko
b.- ailegatu
c.- ailegatzera



KULTUR TXOKOA

Nahiz eta agotena gai "delikatua" izan, badirudi poliki-poliki gure historiaren pasarte latz hau arintzen ari garela, eta gero eta gehiago direla gai honekiko interesa erakutsi dutenak. Azken urteetan agoten gaia oinarri hartuta sortu diren film, liburu eta bertze kultur-produktuak ikustea bertzerik ez dago. Atal honetan, gaia modu entretenigarri batean lantzen duten kultur-produktu horietako batzuk ekarri dizkizuegu. Aditz batzuk falta dira, horixe izanen da zure lana, falta diren aditz horiek ematea:



BAZTAN
2012, Iñaki Elizalde

Izenburuak berak adierazten duen bezala, Baztanen kokatzen(1).... film hau. Bi istorio kontatzen dira modu paraleloan, biak garai ezberdinetakoak. Bata XVII. mendeko loxe izeneko agot gazte bati buruzko istorioa da eta horrek jasaten duen diskriminazioa erakusten du.

Bigarrena, aldiz, XIX. mendean oinarritzen da eta film bat grabatu nahi(2).... eta Baztanera joaten den aktore-talde baten istorioa kontatzen du.

Euskaraz eta gaztelaniaz solastatzen dira drama generoa oinarri duen film honetan. Ikusi ahal izanen ditugun pertsonaien artean, Unax Ugalde, Carmelo Gómez, Mirentxu Goienetxe edo Joseba Apaolaza bezalako aktoreak aurkituko(3).... .



AGOTA (El Agote)
2002, Gaizka Arostegi

Zoritxarrez, liburu hau ez(4).... euskarara itzulia, baina halere, kontatzen duen istorioa dela eta, aipatzeko modukoa iduritu(5).... (guri). XVIII. mendean oinarritzen da, Arizkungo Bozate auzoan.

Martin izeneko agote gazte baten eta Isabel izeneko neska baten arteko maitasun istorioa kontatzen zaigu.

Isabel herriko gizon batekin ezkontzekoa da, baina Martinekin maitemindurik dago. Isabel ez da agota baina Martin bai, hori dela eta, arraza eta leinu arazoak direla medio, ezinezko amodioa biziko(6).... bi nafarrek.

Eleberri honek 208 orri ditu eta Ttartalo etxearekin argitaratutakoa da.



SANTXOTENA MUSEOA
Xabier Santxotena, Arizkun

Santxotena parke-museoan, Xabier Santxotena artistaren artelanak aurki(7)..... .

Aire libreko parkea da eta Arizkungo Bozate auzoan kokatua dago.

Artista honek agot jatorria du eta berak harrotasunez adierazten du hori.

Hori horrela izanik, Agotei egindako omenaldia da museoa. Bertan egurrezko eskulturak ikusten ahal izanen(8).... eta baita ukitu ere.

Jorge Oteitza artista handiaren dizipulua dugu Santxotena.

ERANTZUNAK



LAN eta LAN (3. or.):

1- b; 2- d; 3- j; 4- k; 5- e; 6- g; 7- h; 8- c; 9- i; 10- f; 11- a

JOLAS NAHAS (4. or.):

1- c; 2- a; 3- e; 4- b; 5- d; 6- f

KULTUR TXOKOA (6. or.):

1- da; 2- duen; 3- ditugu; 4- dago; 5- zaigu; 6- dute; 7- daitezke; 8- ditugu

153. aleko sariketa erantzunak – BOTA BERTSOA! (5. or.):

1- gogora; 2- ondiora; 3- inora; 4- proba; 5- denbora; 6- ondora;
7- aldaba; 8- gisara; 9- bertara; 10- badaezpada; 11- enbaxada; 12- euskara

ETXETIK PLAZARA lehiaketa

Gure lehiaketan parte hartzeko, ariketa baten erantzunak bidali beharko dituzu. Ale honetan, **5. orrialdeko** erantzunak dira beheko aldera pasatu beharrekoak. Marratik moztu eta postaz bidali azkeneko orrialdeko helbideren batera. Hurrengo alean ariketa horren erantzuna eta sariaren irabazlearen izena agertuko dira.

Saria: **Urdazubiko
NIKOLAURENEA** jatetxean
bi lagunentzako otordua

152. aleko irabazlea:
Arantxa Bizente Arburua
Etxalarkoa

ETXETIK PLAZARA liburua SALGAI

IKA euskaltegietan eta honako liburu-denda eta saltokietan:

- Beran; Agara eta Igone - Lesakan; Xagu - Arantzan; Ilargi okindegia;
- Igantzin; Bi Bide denda - Donezteben; Ostiz, Blas eta IKA euskaltegia
- Elizondon; Axular eta Nafarpress - Leitzan; Maimur, Astiz eta IKA euskaltegia.

6 eurotan, jantzi zure euskara eta lagundu gure lana!



OHARRA: erantzunak urriaren 6a baino lehen bidal itzazu.



SARIRAKO ARIKETA

BITXILOREAK (5. or.):

- | | |
|-----------|------------|
| 1 - _____ | 7 - _____ |
| 2 - _____ | 8 - _____ |
| 3 - _____ | 9 - _____ |
| 4 - _____ | 10 - _____ |
| 5 - _____ | 11 - _____ |
| 6 - _____ | 12 - _____ |



EUSKARAREN KILIKA!!

alaia eta jostaria
alegre y divertido

freskoa eta naturala
fresco y natural

bixia eta osatua
estimulante y completo

ikas eta ari / aprende euskera

klasikoa eta berritzailea
clásico e innovador

ikauskaltegiak.eus

Matriculikate

euskara
errazago
egiten

ika

**eus
kara
ren
kilika**

Aldizkari honen egileak:

**Bortziriak eta
Malerrekako IKA
Euskaltegiak**

Diseinua, marrazkiak
eta maketazioa:

Joseba Larratxe

Laguntzaileak:

**Nafarroako
Mendialdeko
EUSKARA
MANKOMUNITATEAK**

Zatoz EUSKARAREN kilika sentitzera!!

Zeure herrian, urritik ekainera, astean 4 edo 6 ordu
MAILA GUZTIAK eta EGA, ON LINE ere bai

MATRIKULA ZAITEZ: IKA**bortziriak**, 948 637 796, bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus
IKAmalerrekako, 948 451 555, malerrekako@ikaeuskaltegiak.eus



ZOZKETARAKO DATUAK

Izen-abizenak:.....
Helbidea:..... Herria:.....
Telefona:..... Adina:.....

HORRA GURE HELBIDEAK

Bortziritako IKA Euskaltegia.
Arretxea 22, 31770 Lesaka.
bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus

Malerrekako IKA Euskaltegia.
Rosa seminario 6, behe, 31740 Doneztebe.
malerrekako@ikaeuskaltegiak.eus

